Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko uztailaren 2a, osteguna — 123 — Jueves, a 2 de julio de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Pertsonen Kudeaketa

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026-06-09an honako erabaki hauek hartu zituen:

«Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren 17an onartu zuen 2022ko enplegu publikoaren eskaintza, Donostiako Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dauden zenbait lanpostu biltzen zituena. Erabaki hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, 2022ko maiatzaren 25ean, 98. zenbakian.

Konprometitutako plazen artean, C1 azpitaldeko plaza hutsak daude, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak betetzen dituztenak. Talde horren barruan Udaltzaingoko agenteen 2 plazaren deialdia txertatu zen.

Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2024ko irailaren 11ko 000392/2024 epaia betez –zeinak berretsi egiten baitu Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak abenduaren 22an emandako 237/2023 epaia–, baliogabetu egiten da Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko abenduaren 20ko erabakia, zeinaren bidez onartu baitziren Donostiako Udaleko C1 azpitaldeko plazak lehiaketa bidez betetzeko salbuespenezko egonkortze-prozesuaren deialdiaren oinarriak, V. eranskineko 2.9 apartatuan aurreikusitako betekizun espezifikoari dagokionez (euskarazko B2 hizkuntza-eskakizuna).

Era berean, Langileen Batzordeari epaia betearazteko baldintzen berri eman zaio 2026ko maiatzaren 8an egindako bilkuran.

Oinarriak prestatzean, kontuan hartu da arlo horretako erregulazio berezia; zehazki, 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (EPOETB); 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoa; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileak sartzeko erregelamendu orokorra onartzen duena, toki-administrazioari osagarri gisa aplikatzekoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena; eta 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

Hala, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko eta Euskarako zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez emandako eskumenak baliatu eta Pertsonak Kudeatzeko zuzendariak proposatutakoa kontuan hartuta, honako erabaki hauek proposatzen ditu:

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Gestión de Personas

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local, con fecha 09-06-2026, ha adoptado los siguientes acuerdos:

«La Junta de Gobierno Local aprobó el 17 de mayo de 2022 la Oferta de Empleo Público del año 2022, que incluía diversas plazas vacantes de la plantilla de personal funcionario del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián. Dicho acuerdo fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 25 de mayo de 2022, núm. 98.

Entre las plazas comprometidas, se incluyeron las plazas vacantes del Subgrupo C1 incluidos por la Disposición adicional sexta y octava de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, para ser cubiertas por concurso. Dentro de este grupo se incluyó la convocatoria de 2 plazas de Agente de Guardia Municipal.

A este respecto, en ejecución de la sentencia n.º 000392/2024 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de 11 de septiembre de 2024, la cual confirma la sentencia n.º 237/2023, de 22 de diciembre dictada por el Juzgado de lo Contencioso-administrativo n.º 3 de Donostia-San Sebastián, se anula el acuerdo de la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, de 20 de diciembre de 2022, por el que se aprobaron las bases de la convocatoria del proceso excepcional de estabilización para la provisión mediante concurso de plazas del subgrupo C1 del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, respecto de las plazas de agente de la Guardia Municipal, en relación con el requisito específico previsto en el apartado 2.9 del anexo V (perfil lingüístico B2 de Euskera).

Asimismo, la Comisión de Personal, en sesión celebrada a fecha 8 de mayo de 2026, ha sido informada de los términos en los que se va a ejecutar la sentencia.

En la elaboración de las bases se ha tenido en cuenta la regulación especial en la materia; en concreto, Ley 20/2021 de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público; Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP); Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local; Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración General del Estado, de aplicación supletoria a la Administración Local; Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco; Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco.

En su virtud, el Concejal Delegado de Personas, Gestión Económica y Presupuestaria y Euskera, en uso de las atribuciones que le están conferidas por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local y a propuesta del Director de Gestión de Personas, propone a la Junta de Gobierno los siguientes

EK\CV GAO-I-2026-04195

ERABAKIAK

*Lehenengoa.* Deuseztatzea Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko abenduaren 20ko erabakia, egonkortze-prozesuetan Donostiako Udaleko C1 azpitaldeko Udaltzaingoko agenteen 2 plaza salbuespenezko lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko deialdiari buruzkoa (V. eranskina), eta ondoriorik gabe uztea hautaketa-prozesu horren barruan egindako jarduketa guztiak.

*Bigarrena.* Onartzea, epaia betearaziz, Donostiako Udaleko C1 azpitaldeko Udaltzaingoko agenteen 2 plaza salbuespenezko lehiaketaren sistemaren bidez egonkortze-prozesuetan betetzeko deialdia, euskararen betekizuna kendu eta hori merezimendu gisa txertatu ondoren.

*Hirugarrena.* Hautaketa-prozesua arautuko duten oinarriak onartzea, deuseztatutako deialdiaren oinarrien edukia mantenduz (V. eranskina), epaia betearazteak eragindakoetan izan ezik. Beste prozesu batzuei buruzko zati orokorraren erreferentzia oro hutsala da, eta dagokion prozesuari buruzkoa dela ulertu behar da.

*Laugarrena.* Deialdia eta hori arautzen duten oinarri espezifikoak dagozkien bitarteko ofizialetan argitaratzea.»

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Batzarrari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko ekainaren 18a.—Alfonso Jimenez Grandes, Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria. (4195)

ERANSKINA V

UDALTZAINGOKO AGENTEA

1. *Deitutako plazak.*

Udaltzaingoko Agente bi (2) plaza; C taldea, C1 azpitaldea, Administrazio Bereziko eskala, Zerbitzu Bereziak azpieskala, Udaltzaingoa/Agentea klasekoa.

2. *Betekizun espezifikoak.*

Izangaiek baldintza espezifiko hauek bete behar dituzte:

2.1. Nazionalitatea: Espainiako nazionalitatea izatea.

2.2. Adina: 18 urte izatea eta 38 urte bete gabe izatea.

2.3. Dolozko delituagatik kondenatua ez izatea, administrazio publiko baten zerbitzutik bananduta ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea, hargatik eragotzi gabe birgaitzearen onura aplikatzea, arau penalen eta administratiboen arabera.

2.4. Titulazioa: Deialdiko plaza bakoitzerako plazen taulan adierazitako titulu akademikoa edo baliokidetzat jotako titulua izatea, edo hura lortzeko moduan izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

ACUERDOS

*Primero.* Anular en ejecución de sentencia el acuerdo de la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, de 20 de diciembre de 2022 en relación a la convocatoria para la provisión mediante el sistema de concurso excepcional de 2 plazas de Agente de Guardia Municipal del subgrupo C1 del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián en procesos de estabilización (anexo V), dejando sin efecto todas las actuaciones realizadas dentro de este proceso selectivo.

*Segundo.* Aprobar en ejecución de sentencia la convocatoria para la provisión mediante el sistema de concurso excepcional de 2 plazas de Agente de Guardia Municipal del subgrupo C1 del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián en procesos de estabilización, tras la supresión del requisito de euskera y su inclusión como mérito.

*Tercero.* Aprobar las bases que regularán el proceso selectivo manteniendo el contenido de las bases de la convocatoria anulada (anexo V), excepto en lo afectado por la ejecución de sentencia. Entendiendo que toda referencia de la parte general relativa a otros procesos es irrelevante y debe entenderse referida al proceso en cuestión.

*Cuarto.* Publicar la convocatoria y las bases que la regulan en los medios oficiales que correspondan.»

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él, Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso potestativo de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 18 de junio de 2026.—El director de gestión de Personas, Alfonso Jimenez Grandes. (4195)

ANEXO V

AGENTE DE LA GUARDIA MUNICIPAL

1. *Plazas convocadas.*

Se convocan dos (2) plazas de Agente de la Guardia Municipal perteneciente al grupo C, Subgrupo C1, Escala de Administración Especial, Subescala de Servicios Especiales, Clase Policía Local/Agente.

2. *Requisitos específicos.*

Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos específicos:

2.1. Nacionalidad: Tener la nacionalidad española.

2.2. Edad: Tener cumplidos 18 años y no haber cumplido la edad de 38 años.

2.3. No haber sido condenada la persona por delito doloso, ni separada del servicio de una Administración pública, ni hallarse inhabilitada ni suspendida para el ejercicio de funciones públicas, sin perjuicio de la aplicación del beneficio de la rehabilitación, de acuerdo con las normas penales y administrativas.

2.4. Titulación: Estar en posesión del título académico o título declarado equivalente señalado en el cuadro de plazas para cada una de las plazas objeto de la convocatoria, o en condiciones de obtenerlo en la fecha en que termine el plazo de presentación de solicitudes.

EK\CV GAO-I-2026-04195

2.5. Bazterketa arrazoi medikoen taula: Ez egotea bazterketa eranskin honen 6. puntuan jasotako arrazoi medikoen taulan.

2.6. Gutxieneko altuera: Gutxienez 1,65 metroko altuera izatea gizonek, eta 1,60 metrokoa emakumeek.

2.7. Armak eramateko konpromisoa hartzea, eta, hala badagokio, armak erabiltzea aitorpen bidez.

2.8. Gidabaimena: «B» gidabaimena indarrean izatea.

*3. Lehiaketako merezimenduen balorazioa.*

Gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dira, honela banatuta:

— Lan-esperientzia: gehienez, 80 puntu.

— Prestakuntza, hautaketa-prozesuak gainditzea, lan-poltsetan izatea eta gidabaimenak: gehienez, 20 puntu.

A) Esperientzia profesionala: Lanbide-esperientziagatik gehienez 80 puntu lortu ahal izango dira.

a) Donostiako Udalean eta haren erakunde autonomoetan egindako zerbitzuak, Udaltzaingoko Agente plazari dagozkion lanpostuetan (C taldea, C1 azpitaldea): gehienez 80 puntu, hileko 0,90 puntu.

b) Donostiako Udalean eta haren erakunde autonomoetan egindako zerbitzuak, deialdiko plazetan ez den beste batzuetan: gehienez 20 puntu, 0,27 puntu hilabeteko.

c) Donostiako Udala eta haren erakunde autonomoak ez diren beste udal administrazioetan egindako zerbitzuak, deialdiko plaza bezalako edo haren balio bereko besteren batean (C taldea, C1 azpitaldea): gehienez 60 puntu, 0,60 puntu hilabeteko.

d) Beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuak, deialdiko plaza bezalako edo haren balio berekoren batean (C taldea, C1 azpitaldea): gehienez 60 puntu, hilabete bakoitzeko 0,30 puntu.

c) eta d) ataletan lortutako puntuazioen baturak ezin izango du 60 puntu baino gehiago izan.

B) Prestakuntza, hautaketa-prozesuak gainditzea, lan-poltsetan egotea eta gidabaimenak.

B) atal honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.

B.1) Titulazio akademiko ofiziala. Atal honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

10 puntu izango dira lortu nahi den lanposturako eskatzen den maila bereko edo handiagoko titulazio akademiko ofiziala izanez gero. Maila berekoa bada, eskakizun gisa egiaztatutako ez beste titulazioren bat izan beharko du. Betekizuna egiaztatzeko kontuan hartzen den titulua ez da meritu gisa kontatuko.

B.2) Hautaketa-prozesuak gainditzea. Atal honetan gehienez 20 puntu lortu ahal izango dira.

— Donostiako Udalean eta haren erakunde autonomoetan Udaltzaingoko Agente plazaren batean karrerako funtzionario izateko egindako deialdiren bateko oposizio faseko ariketa baztertzaile guztiak gainditzeagatik: 20 puntu.

— Donostiako Udalak eta haren erakunde autonomoek Udaltzaingoko Agente plazetan aldi baterako beharrak (lan-poltsak) betetzeko deitutako hautaketa-prozesu publikoetako eta lehia askeko hautaketa-prozesu baztertzaileetako ariketa guztiak gainditzeagatik: 10 puntu.

— Donostiako Udala eta haren erakunde autonomoak ez beste administrazio publiko batean Udaltzaingoko Agente plazak behin betiko edo behin-behinean betetzeko deitutako hautaketa-prozesu publikoetako eta lehia askeko hautaketa-prozesu baztertzaileetako ariketa guztiak gainditzeagatik: 5 puntu.

2.5. Cuadro de exclusiones médicas: No estar incursa en el cuadro de exclusiones médicas que se adjunta en el apartado 6 de este anexo.

2.6. Estatura mínima: Tener una estatura mínima de 1,65 metros los hombres y 1,60 metros las mujeres.

2.7. Prestar el compromiso mediante declaración de portar armas y en su caso utilizarlas.

2.8. Permiso de conducir: Estar en posesión del carnet de conducir «B» en vigor.

*3. Valoración de los méritos del concurso.*

Se podrá obtener una puntuación máxima de 100 puntos, con la siguiente distribución:

— Experiencia profesional: máximo de 80 puntos.

— Formación, superación de procesos selectivos, pertenencia a bolsas de trabajo y permisos de conducir: máximo de 20 puntos.

A) Experiencia profesional: Por la experiencia profesional se podrá obtener una puntuación máxima de 80 puntos.

a) Servicios prestados en el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos en puestos de trabajo correspondientes a la plaza Agente de la Guardia Municipal (grupo C, subgrupo C1): máximo de 80 puntos a razón de 0,90 puntos por mes.

b) Servicios prestados en el Ayuntamiento de San Sebastián en plazas diferentes de la convocada: máximo de 20 puntos a razón de 0,27 puntos por mes.

c) Servicios prestados en una administración municipal diferente al Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos en plaza igual o equivalente a la convocada (grupo C, subgrupo C1): máximo de 60 puntos a razón de 0,60 puntos por mes.

d) Servicios prestados en otras administraciones publicas en plaza igual o equivalente a la convocada (grupo C, subgrupo C1): máximo de 60 puntos a razón de 0,30 puntos por mes.

La puntuación máxima por la suma de las puntuaciones obtenidas en los apartados c) y d) no podrá superar los 60 puntos.

B) Formación, superación de procesos selectivos, pertenencia a bolsas de trabajo y permisos de conducir.

En este apartado B) se podrá obtener una puntuación máxima de 20 puntos.

B.1) Titulación académica oficial. En este subapartado se podrá obtener una puntuación máxima de 10 puntos.

Se valorará con 10 puntos estar en posesión de una titulación académica oficial de nivel igual o superior a la exigida para acceder a la plaza a la que se opta. Si es del mismo nivel deberá ser una titulación distinta de la acreditada como requisito, dado que no se tendrá en cuenta como mérito el título que se considere a efectos de acreditación del requisito.

B.2) Superación de procesos selectivos. En este subapartado se podrá obtener una puntuación máxima de 20 puntos.

— Por haber superado todos los ejercicios eliminatorios de la fase de oposición de una convocatoria de acceso a la condición de personal funcionario de carrera del Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos para cubrir plazas de Agente de la Guardia Municipal: 20 puntos.

— Por haber superado todos los ejercicios eliminatorios de procesos selectivos públicos y de libre concurrencia convocados por el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos autónomos para cubrir necesidades temporales (bolsas de trabajo) en plazas de Agente de Guardia Municipal: 10 puntos.

— Por haber superado en una administración pública diferente del Ayuntamiento de San Sebastián y de sus organismos autónomos todos los ejercicios eliminatorios de procesos selectivos públicos y de libre concurrencia para cubrir definitiva o temporalmente plazas de Agente de la Guardia Municipal: 5 puntos.

EK\CV GAO-I-2026-04195

Atal horietan lortutako puntuazioen baturak ezin izango du 20 puntu baino gehiago izan.

B.3) Donostiako Udalaren lan-poltsetan egotea. Atal honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

— Donostiako Udaleko Udaltzaingoko Agente lan-poltsetan izateagatik: 10 puntu.

B.4) Hizkuntzak. Ingelesa, frantsesa eta alemana. Azpiatal honetan, ingelesa, frantsesa eta/edo alemana jakiteagatik 10 puntu emango dira gehienez.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen arabera, puntuazio hau emango da:

— B2 maila: 10 puntu.

— B1 maila: 5 puntu.

Hizkuntza bakoitzerako, egiaztatzen den mailarik altuena bakarrik baloratuko da.

B.5) Informatikako ezagutzak. Azpiatal honetan, IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatutako informatika-ezagutzak baloratuko dira, eta gehienez 10 puntu lor daitezke.

Honako ziurtagiri hauek baloratuko dira:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

— Internet.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 edo geroagokoa.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo geroagokoa.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagokoa.

Ziurtagiri horiek baremo honen arabera baloratuko dira:

— Oinarrizko mailako ziurtagiri bakoitzeko: 2,5 puntu.

— Maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko: 5 puntu.

— Maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko: 5 puntu.

Modulu bereko oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatuz gero, aurreratua besterik ez da baloratuko.

Aplikazio baten bertsio berrienak baliorik gabe utziko ditu, balorazio aldetik, hura baino zaharragoko guztiak; baldin eta izangaiak lehenagoko bertsio hartan maila aurreratua lortu ez badu behintzat, maila aurreratua baloratuko da orduan eta.

B.6) Gidabaimenak. Azpiatal honetan «A1» edo «A2» gidabaimena indarrean izatea 5 punturekin baloratuko da.

*4. Euskara.*

5 puntu emango dira B1B1 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua) hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik.

10 puntu emango dira B2B2 (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua) hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik.

*5. Emakumeei lehentasunezko klausula aplikatzea.*

Azken kalifikazioan berdinketa izanez gero, emakumeei lehentasuna emateko klausula aplikatuko da.

*6. Formakuntza.*

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokio prestakuntza-ikastaroa prestatzea eta zeinek egin eta gainditu duten egiaztatzea, hautaketa-prozesuaren beste fase bat eta baztertzailea izanik.

Por la suma de las puntuaciones obtenidas en los apartados anteriores no se podrán superar los 20 puntos.

B.3) Pertenencia a bolsas de trabajo del Ayuntamiento de San Sebastián. En este subapartado se podrá obtener una puntuación máxima de 10 puntos.

— Por formar parte de las bolsas de trabajo de Agente de la Guardia Municipal del Ayuntamiento de San Sebastián: 10 puntos.

B.4) Idiomas. Inglés, francés y alemán. En este subapartado se valorará, hasta un máximo de 10 puntos, el conocimiento de inglés, francés y/o alemán.

En función de los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas se otorgará la siguiente puntuación:

— Nivel B2: 10 puntos.

— Nivel B1: 5 puntos.

Para cada idioma se valorará únicamente el nivel superior que se acredite.

B.5) Conocimientos informáticos. En este subapartado se valorarán los conocimientos informáticos acreditados mediante el sistema de certificaciones IT Txartela, pudiendo obtener un máximo de 10 puntos.

Serán objeto de valoración las siguientes certificaciones:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.

— Internet.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 o posterior.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010 o posterior.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior.

Estas certificaciones se valorarán de conformidad con el siguiente baremo:

— Por cada certificación de nivel básico: 2,5 puntos.

— Por cada certificación de nivel avanzado: 5 puntos.

— Por cada certificación de nivel único: 5 puntos.

En caso de que se acredite el nivel básico y el nivel avanzado del mismo módulo, sólo se valorará el avanzado.

Las certificaciones de una aplicación de versión posterior anularán las versiones anteriores, salvo que en la anterior versión la persona aspirante haya obtenido el nivel avanzado, en cuyo caso, se valorará este último.

B.6) Permisos de conducir. En este subapartado se valorará con 5 puntos estar en posesión del permiso de conducir «A1» o «A2» en vigor.

*4. Euskera.*

Se otorgarán 5 puntos por acreditar el perfil lingüístico B1B1 (del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas).

Se otorgarán 10 puntos por acreditar el perfil lingüístico B2B2 (del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas).

*5. Aplicabilidad de la cláusula de prioridad a las mujeres.*

En caso de empate en la calificación final, será de aplicación la cláusula de prioridad a las mujeres.

*6. Formación.*

Corresponderá a la Academia Vasca de Policía y Emergencias preparar y acreditar la realización y superación del curso de formación, constituyendo una fase más del proceso selectivo y teniendo carácter eliminatorio.

EK\CV GAO-I-2026-04195

*7. Bazterketa arrazoi medikoak.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia hautatu eta prestatzeko araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua laugarren aldiz aldatzen duen azaroaren 22ko 142/2022 Dekretua (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* 2022ko abenduaren 12ko 235 zk.).

* Baztertzeko arrazoi orokorrak.

1. Medikuntza-arloko Bazterketen Taulako edozein apartatu aplikatzeko, honako egoera hauek baztertze-arrazoitzat hartuko dira:

a) Prestakuntza-aldiak behar bezala egiteko ezintasuna aurreikusten duten prozesuak.

b) Etorkizunean zerbitzuaren berezko eginkizunak erabat betetzeko murrizketaren bat edo baldintza psikofisikoen urritasun iraunkorra ekar dezaketela aurreikusten duten prozesuak.

c) Izangaiari egin zaion galdetegi, gaixotasun edo tratamendu medikoari dagokion edozein egoera psikofisiko ez betetzea edo faltsutzea.

2. Medikuntza-arloko Bazterketen Taulako baldintza psikofisikoen zehaztapena deialdia egiten den uneko ebidentzia zientifikora egokituta egongo da, dagokion organo fakultatiboaren txosten teknikoak banaka arrazoituta, eta kasu bakoitzean hautaprobak gainditzeari kalterik egin gabe. Horretarako, dagokion osasun-galdesorta aplikatuko da, eta beharrezko miaketa guztiak egingo dira, besteak beste, odolaren eta gernuaren analitika, substantzia psikotropikoak edo drogak hautemateko, eta alkoholarena, hala ezartzen denean.

— Lehenengo zatia: «Antropometria».

1.— Kanpoan geratuko dira 18tik beherako GMI dutenak edo 28tik gorakoak, baldin eta gantz-ehunaren ehunekoa % 23tik gorakoa bada gizonetan eta % 31tik gorakoa emakumeetan, inpedantzia bioelektriko bidez neurtuta.

GMI formula honekin lortuko da:

$$\text{GMI} = \frac{\text{Pisua (kg-tan)}}{\text{Talla (metrotan)}}$$

Pisua barruko arropan neurtuko da.

28 baino GMI handiagoak onartu ahal izango dira, baldin eta, objektiboki eta argi eta garbi, ez bada gorputzeko koipea handitzeagatik, baizik eta muskulu-garapen markatuagatik, eta ez badu patologiarik edo gehitutako arrisku-faktorerik.

2.— Estatuko langileen altueraren 5. pertzentila gainditzen ez duten pertsonak baztertu egingo dira, Estatistikako Institutu Nazionalean dauden azken datuen arabera.

— Bigarren zatia: «Mediku azterketa».

A. Bazterketa orokorra. Gaixotasun, sindrome edo akats fisikoren bat izatea, baldin eta, mediku-epaimahaiaren iritziz, bere kabuz, bere bilakaeragatik, ondorioengatik edo tratamenduagatik edo bere kontrol-beharragatik, bere gain utzitako eginkizunak behar bezala betetzea nabarmen zailtzen edo mugatzen badu, edo bere buruari edo hirugarrenei arriskua eragiten badie.

Aldaketa horiek baztertzeko arrazoitzat hartu ahal izango dira, baldin eta hautaketa-prozeduraren edozein fasetan agertzen badira.

B. Oftalmologia.

1.— Ikusmen-zorroztasuna, zuzenketarekin edo zuzenketarik gabe: ezin izango da begi bakoitzeko ikusmen normalaren 7/10 baino txikiagoa izan.

*7. Cuadro de exclusiones médicas.*

En aplicación al Decreto 142/2022, de 22 de noviembre, de cuarta modificación del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco (n.º 235 del *Boletín Oficial del País Vasco* del 12 de diciembre de 2022).

* Causas generales de exclusión.

1. Para la aplicación de cualquier apartado del cuadro médico de exclusiones se considerarán las siguientes situaciones como motivos de exclusión:

a) Procesos que hagan prever la incapacidad para realizar los periodos de formación adecuadamente.

b) Procesos en los que se prevea que en un futuro pudieran ocasionar algún tipo de limitación en el desempeño pleno de las funciones propias del servicio o puedan suponer una insuficiencia de condiciones psicofísicas de carácter permanente.

